

Euskarazko prestakuntzaren oinarriak

Aurkezpena

Euskarazko prestakuntza eskaintza hau Euskarabideak /Euskararen Nafar Institutuak egiten du administrazio publikoetako langile guztientzat.

Euskarazko prestakuntzaren ezaugarriak

Eskaintzako ikastaroek euskara ikastea dute helburua, baita lanean euskaraz aritzeko gaitasuna lortzea ere. Bertan, hainbat ikastaro mota antolatzen dira helburu, iraupen eta metodologia desberdinekoak. Beraz, eskaintza anitza, langileen prestakuntza beharrak asetzeko.

Prestakuntza honen oinarria

Euskarazko prestakuntza-eskaintza oinarritua dago Europako Erreferentzia Marko Bateratuan (EEMB). Marko hau Europako Kontseiluak bigarren hizkuntzak ikasi eta irakasteko sortu zuen eta gaur egun, Europa osoan erabilpen zabala dauka. Bertan zehazten da maila bakoitzean erabiltzailek edukiko duen gaitasuna, baita zer eginen duen gaitasun hori lortzeko.

Mailak

EEMBn definitutako mailak eta azpimailak, hizkuntza guztietarako berberak dira; beren iraupena ikasturte bat edo luzeagoa da (B2 eta C1 mailen kasuak):

- **A Maila: Oinarrizko erabiltzailea**
 - **A1 Maila:** Hasierakoa
 - **A2 Maila:** Tartekoa
- **B Maila: Erabiltzaile independentea**
 - **B1 Maila:** Atalasea
 - **B2 Maila:** Aurreratua
- **C Maila: Erabiltzaile gaitua**
 - **C1 Maila:** Gaitasun operatibo eraginkorra
 - **C2 Maila:** Menderatze-maila

Mailen eta urratsen arteko alderaketa

Lehenengo urratsak honela banatu dira oraingo mailetan:

- A1 MAILA: lehenengo 1. eta 2. urratsak oraingo A1.1 eta A1.2 dira
- A2 MAILA: lehenengo 3. eta 4. urratsak oraingo A2.1 eta A2.2 dira
- B1 MAILA: lehenengo 5. eta 6. urratsak oraingo B1.1 eta B1.2 dira
- B2 MAILA: lehenengo 7. ,8. eta 9. urratsak oraingo B2.1, B2.2 eta B2.3 dira
- C1 MAILA: lehenengo 10. eta 11. urratsak oraingo C1.1 eta C1.2 dira.
- C2 MAILA: maila honetan prestakuntza teknikoko ikastaroak eskaintzen da

Alfabetatzea

Ama hizkuntza euskara izan eta alfabetatu gabe daudeneztat ikastaro bereziak ematen dira, ikasle nahikorik batuz gero. Bada bigarren aukera bat: prestakuntza hau autoikaskuntza lagunduaren bidez jasotzea.

Prestakuntza teknikoa

Prestakuntza honen helburua da lan esparruan euskara erabili behar duteneztat ezagutza nahikoa ematea euskaraz egoki komunikatu ahal izateko.